

Opakuako gurutzea

Crucero de Opakua



ATHA-GUE-CD-02796

Objektua ■ Objeto

Opakuako gurutzea
Crucero de Opakua

Kokapena ■ Ubicación

Opakua

Kronologia ■ Cronología

XVI. mendea. Errenazentista
Siglo XVI. Renacentista

Azalpena ■ Descripción

Fuste oktagonaleko hareharrizko gurutzea
Crucero de piedra arenisca, de fuste octogonal

Gorabehera askoren ondoren (salmenta eta lekualdaketa, Gotzaindegiak jaso oinordetzan eta herriari dohaintzan eman), gurutzea Sarriako "Atse-leku" finkatik bere jatorrizko herrira itzuli da, Opakuara.

Después de muchas vicisitudes (venta, traslado, herencia al Obispado y donación al pueblo) el crucero vuelve desde la finca "Atse-leku" de Sarria a su localidad de origen, Opakua.



Irudi hauetan, ezkerrean, Sarrian; eskuinean, zaharberrituta, Opakuan.

En estas imágenes, a la izquierda en Sarria, a la derecha, ya restaurado, en Opakua.



Gurutzeren alde batean Jesu Kristo gurutziltzatuta dago, eta bestean Ama Birjina Haurrarekin.

En la cruz está, por un lado, Cristo crucificado y por el otro, la Virgen con el Niño.

Zaharberritzea bi fasetan egin da, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Zaharberritze Zerbitzuak urtero sustatzen duen dirulaguntzen deialdiaren bidez.

La restauración se ha realizado, en dos fases, a través de la convocatoria de subvenciones que promueve anualmente el Servicio de Restauración del Departamento de Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava.

Gurutzea 2018an oinordetzan jaso ondoren, Apezpikutzak Opakuako herriari itzultzeko prozesua abian jarri zuen.

Tras recibir en 2018 el crucero en herencia, el Obispado puso en marcha su devolución al pueblo de Opakua.



Lanak bi fasetan egin ziren, bi enpresaren eskutik:

I. FASEA - Artyco

- Dokumentazio historikoa biltzea: idatzizkoa, grafikoa eta fotografikoa.
- Kontserbazio-egoeraren mapak egitea.
- Babestea.
- Desmuntatzea.
- Harmailak kokapen berrian jartzea.
- Gurutze osoa lekuz aldatzea eta birkokatzea.

II. FASEA - Petra

- Hautsa, kolonizazio biologikoa, animalien gorotzak, orbanak eta gainazaleko deposituak kentzea.
- Mortero desegokiak kentzea.
- Eremu bereizietan eta hutsaletan kare hidraulikoko esne-injekzioak ematea.
- Zuloak eta pitzadurak kare hidrauliko naturaleko morteroekin ixtea.
- Amaierako hidrofugazioa.
- Metalen tratamendua.
- Porositate-neurketa (AFA Laborategi Orokorra).
- Azken txostena eta mantentze-plana egitea.

Los trabajos se realizaron en dos fases, por dos empresas diferentes:

FASE I - Artyco

- Recopilación de la documentación histórica tanto escrita, como gráfica y fotográfica.
- Elaboración de mapas de estado de conservación.
- Protección.
- Desmontaje
- Colocación de gradas en nueva ubicación.
- Traslado y recolocación de todo el crucero.

FASE II - Petra

- Eliminación de polvo, colonización biológica, deposiciones de animales, manchas y depósitos superficiales.
- Eliminación de morteros inadecuados.
- Inyección de lechadas de cal hidráulica en zonas separadas y huecas.
- Sellado de huecos y fisuras con morteros de cal hidráulica natural.
- Hidrofugación final.
- Tratamiento de los metales.
- Medición de porosidad (Laboratorio General DFA).
- Elaboración de informe final y plan de mantenimiento.



LG 6 9/2025

Zaharberrikuntza Zerbitzua
Servicio de Restauración

Urartea, 4 • 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 20 50
restauraciones@araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral